

# NEURE ARAZOA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

Bulego-eraikin bateko zabaltzan dago **VANESA**, bere buruz beste egingo duela mehatxatzen duen gizon batekin hitz egiten.

**VANESA:** Zuk zeure arazoak dituzu, baina ez zara arazoak dituen pertsona bakarra, badakizu? Hauxe da nire arazoa: Cintia izeneko lagun batekin geratu naiz, gutxi barru, joan den astean ikusi genuen blusa bat erostera. Dendan geratzen den azken blusa da - ikusi egin beharko zenuke, ederra da, blusa taxutua, krema-kolorekoa, granate erreflexu batzuekin, badakizu?, nola geratzen zaidan ikusi beharko zenuke, niretzat egina dirudi - eta gordetzen ari didate, baina gaur arte bakarrik gordetzen didate, bihar, jada, ez didate gordetzen. Denda bederatzi eta erdietan ixten da eta nik bederatzietan irteten naiz lanetik. Denbora justuarekin iritziko gara, oso justu, ez zaigu minutu bat ere sobratuko. Pentsatu oraindik aldatu egin behar naizela, ez naizelako horrela jantzita joango. Ez, ez dut maniarik, ez didate uzten. Begiratu nahi ez didazunez, nola noan jantzita esango dizut: herriko kale-garbitzailez jantzita noa. Ez naiz kale-garbitzailez mozorrotutako polizia, ez psikiatra bat, ez kale-garbitzailez mozorrotutako filmetako negoziatzaile bat, ez. Benetako kale-garbitzailea naiz -nahiago baduzu, Udalaren Mantentze Lanetako lantaldeko behargina-. Eta nire gurditxoarekin eta erratzarekin hemendik pasatzen nintzen, eta antolatu duzun istilua ikusi dut. Eta berehala gogoratu naiz zain dudan blusaz. Kontua da kale hau garbi utzi behar dudala nire txanda amaitu baino lehen. Txanda bederatzietan amaitzen da. Bederatziak laurden gutxi dira. Jauzi egiten baduzu, izorratu egingo nau, espaloia odolez, erraiez eta garuneko zatitxoaz beteko didazulako, eta ezingo naiz joan garbitu arte. Eta zuk ez dakizu zenbat kostatzen duen hori garbitzeak. Hau da, laburbilduz: jauzi egiten baduzu, blusarik gabe uzten nauzu. (*Isilune une bat*) Ondo pentsatu. (*Seriotasunez*) Jauzi egin nahi baduzu, jauzi egin -berdin dit-... baina itxaron nire txanda amaitu arte, mesedez. Hamabost minutu. Zuk arazoak dituzu, nik arazoak ditut, denok ditugu arazoak. Ez dugu elkar izorratuko. (*Ordua begiratzen du*) Zer diot hamabost minutu: Hamar minutu. Hamar minutu, jauna. Ez arazorik sortu ez dagoen tokian.

Ele txera  
Hondatuak zabaltzen



# NEURE ARAZOA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**OHARRAK:** Bakarrizketa komikoa da hau. Grazia da **VANESA**k garrantzi oso desberdineko bi arazo berdintzen dituela: blusa bat galtzeko aukera bizia galtzeko aukerarekin. Hor datza testu honen grazia.

Bakarrizketa honetan, **VANESA**ri ez dio makurkeria mugitzen. Bere begirada estuan datza, berekoikeria gorenekoa. **VANESA** pertsona ona da. Fede onez jokutzen du. Zenbat eta zintzoagoa izan -eta, beraz, bere argudioetaz konbentzitua-, orduan eta xeblebreagoa izango da ikuslearentzako mezua.

Ele txera  
Mundua ez zabalduz

